


Juan San Martin Liburutegia
“Idazlearekin harixa emoten”



JENDE LIKIDOA

Nerea Arrien, Erein, 2021

Iruzkina: Antxon Narbaiza, 2022-01-11



Wikipedian

https://eu.wikipedia.org/wiki/Nerea_Arrien

Literaturaren zubitegian

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=977>

Jende likidoaz zerbait

Irakurriko dugun nobela honetan jende likidoa aipatzen da. Hasteko, termino kontua dugu. Hain zuzen, likidoa solidoari kontrajarriz dator beti. Jakina, hitzaren sortzailearen arabera, solidotik likido kontzeptura pasatzeko bidean zerbait galdu da, “balore” edo agian, ziurtasun batzuk. Alegia, **orain eta gaur** mundu bateko jende likidoa aurkitzen dugu (edo gara) zeinetan, bilakaera berriari jarraituz, eta beti hitzaren sortzailearen arabera, alderdi etsikorrak baikorrak baino gehiago aurkituko ditugun. Beraz, hasteko behintzat, “likidotasuna” daukan gizarte horrek zer ezaugarri nagusi dituen irakurriko dugu.

Zygmunt Bauman (1925-2017), poloniar soziologo eta filosofoak horrelako teoriak plazaratu zituen XX. mendearen azken aldian, bere ustez modernitatearen osteko gizartearen ezaugarriak zirenak azaltzen zituela (**Eranskinean** ematen dugu haren teoriari berri zenbait). Besteak beste, gizarte likidoak **ilauntasuna**, **efimerotasuna**, gizakiaren etengabeko mugimendua adierazten du; jarrera *berri* hauetan, ikusten baititugu eta ondorioztatzen, aipaturiko portaera efimeroak: hau da, **amaitu**, **aldatu** egiten denak **iraun** egiten duenari, **iraunkorrari** alegia, lekua hartzen diolako.

Eta, adibide bat: heroiak ospatzen dituzten gizarte likidoak ospatzera pasatu gara: “zelebridadeak” deitu ohi direnak. Hori bai, berauekiko grina edozein momentutan desegin daiteke.

Hasierakoarekin lotuz, likidoa, hau da, garai batean solidoa zena, orain gure erruz geroz eta likidoa bihurtzen ari den gizartea dugu. Berez, bere trinkotasuna galdu edo galtzear dagoena. Hitz batez esateko, **anomalía bat**. Eta, terminoaren asmatzaileak, arestian aipatu dugun poloniar komunista eta judua zen Zigmunt Bauman-ek esanahi hori ematen zion. Irakur dezagun zer dioen:

“Zatikako bizitza, *fragmentala*, alegia, daramagu. Gizarte likidoak ez du bere burua ikasketa edo akumulatze kultura legez ikusten, hots, kultur munduan lanen bidez, errotu ziren historialari eta etnografoen haiek bezala.

Informazioa **kopurua abiadura** geroz eta handiagoz zabaltzen den sasoi honetan, **sekuentzia ordenatu eta progresiboak sortzea** geroz eta zailagoa bihurtzen da.

Aipatu dugun zatikatze hori nagusi bilakatzen da. Eta zertzelada horrek eragina dauka jakindurian, langintzan, eta, azkenik, gizarte bizitzan: bizitza elektronikoa eta ziber-bizitza bihurtu da dagoeneko gure gizarte-bizitza”.

Egungo gizartea berekoitasunean oinarritzen da, indibidualismoan, hau da, aldizkakoa eta ezegonkorra den gizarte batean non sasoi bateko solidotasuna, trinkotasuna galdu den. Orain bizitza-era aldakorra eta ilauna (efimeroa) bizi dugu. Gure harremanak, egintzak, burutazioak, aski likidoak izan ohi dira.

Bauman-ek, besteak beste, kontsumo gizartea kritikatzeko zuen¹. Kontsumitzaileak asko kontsumitzea ez da larriena. Jarduera haren atzean dagoen mezua baino. Okerrena da propaganda saiitzen dela kontsumitzailea asebetete (=satisfecho) senti ez dadin. Izan ere, kontsumitzailea zoriontsua sentitzen bada, kontsumo indarren kontra egiten du, zuzen edo zeharka: ez du erosteko **egarri konpulsiboa** izango. Eta, kontsumo gizartearen **gidariak** egarri hori mantendu nahi dute gizabanakoarengan beren interesetarako.

Likidotasun hau, hots, esan dugun legez, gauza, sentsazio iheskor, galkor bezala, lehen aldiz, guk dakigula behintzat, euskal literaturan, Nerea Arriek plazaratu du nobela edo ipuin formatuan.

¹ Eta kontsumoaren mundua aipatzen da. Gizabanakoa kontsumitzailea da beste ezer baino lehenago, hain zuzen, kontsumitu ahal izateko gaitasunak definituko du gizarte berria, estatus berria. Elisabeth Geffroy filosofoaren arabera, kontsumitzaileak **inoiz helburu batera iritsiko ez den desio bat** adierazten du: kontsumitzailea jarrera ezegonkorrean mantenduko baitu, *in aeternum*, satisfazioa lortu ezinda.

Nolako irakurgaia?

Liburuak hamabi atal dauzka, eta, beroietako bakoitzak, letra etzanetan, azpi-atal bat darama aurretik.

Eta esan duguna esanda, nola eragiten diote arestian aipatu ditugun teoriak Nerea Arrienen lanari? Aise ohartuko gara nobelaren *likidotasunaz*.

Hasteko, irakurleari agian, Nerea Arrienen lana esku artean daukala, behin irakurketa amaiturik bere buruari luzatzen dion itauna izan liteke. Osotasun bat ote da irakurri berri dudana? Edota eleberri bat ala ipuin liburu baten aurrean gaude? Liburuaren egitura ikusirik, ez dira beti atalak eta azpi-atalak gure ustez ongi finkatzen, gaiek *a priori* horrelakorik erakus dezakete, baina argumentuzko lotura handiegia ez dutela iruditu arren, ez dago zalantzarik, “guztiak”, osagai berberak dituztela kontakizunetan barrena. Arrienen liburua aurkeztu zen egunean bertan adierazten zen bezala: “ bada ipuin edo narrazio bilduma bat, baina nobela bat bezala ere irakur daiteke”.

Iñazio Mujika editoreak zioen legez: “Jende likidoari dagokion bezala, alderrai, alde batetik bestera dabiltzan pertsonaien artean konexio asko daude. Ipuinek elkarren anparoan irabazi egiten dute elkar osatzen dutelako.”²

Ura: hau da itsasoa

Gure iruzkinean jardungo dugun legez, forma aldetik, ura izan liteke eleberri edo ipuin sorta honetako atal desberdinak harremanean jartzen dituen arrazoiak: estoldak, malakoak, balde lixibaz beteta, edota Aquarium-a, hura ere ura, azken finean, liburuaren hasieran errepikatuko den erreferentzia, edota hoditeriak, esaten zen liburuaren aurkezpenean liburuaren atal ugariak uztartzen dituen, zelanbait, eta, ororen gainetik, gehitzen duguk, **itsasoa**, bere handitasun eta agortezintasunean gure pertsonaien bizitza, nolabait, baldintzatzen duena dugu.

Laburbilduz, eleberria edo ipuin liburua, ez du eztabaida gehiago merezi. Irakur dezagun astiro, ñabardurez oso aberatsa baita liburua, irakurri arretaz eta patxadaz Nerea Arrienen liburu iradokitzaile hau.

Iruditeria: Itsasoa eta Itsastarrak

Egileak iruditeria trinko bat erakutsi nahi du nobelan. Eta garrantzizkoena, sarreran aurreratu dugun bezala ura da, eta, bide batez, itsasoa. Egileak mila kolorez eta egoera ugaritan erakutsiko diguna: **itsasoa**, hainbat fenomenoren sortzaile: haren indarraren irudi politik eskainiz: **olatu**en eta beren boterea gizakiak eraiki izan duena eraldatzeko; edota

² *El Diario Vasco*, 2021-05-04).

traganarruak indar erakusle bikainak, hau da, itsasoa eta hark suposatzen duen mundu besarkaezaina. Bestalde, ugaria da arrain izenen zerrenda, maiz izen zientifikoa barne.

Halaber, eta, horra beste paradoxa bat, likidotasun gordinenean nabigatzen ari diren pertsonaia(k), ostera, kostunbrismo arruntena erakusteko gai dira, eta ez dira preseski likidoak!: aitona arrantzalea, amona eta bere nortasuna, amaren jasankortasuna, aitaren *iheslariaren* izaera, sare-konpontzaileak, herri arrantzaleak beren hiztegi bereziarekin...Laburbilduz, itsastarren bestelako bizitza. Solidotasunaren adibide izan diren gizon-emakume haiei omenaldia egiten die egileak. Horra paradoxa, horren likidoa den kontakizunean.

Ametsak bete nahi lituzke

Itsasoak ume-umetatik piztu du haurraren bizitza, haren baitan mundu berezi bat sorraraziz, bere kolore bereziekin, haren absolutuak dena menderatzen duela. Ume hura neska koskor eta gero emakume bilakatu da. Hirira joan da bizitzera. Baina itsas bizitza du ametsetako bat. Horregatik, besteak beste, aquarium bat irudikatzen du, ikusten du bere tresneria guztiarekin. Ez da itsasoa baina ura ageri du eta arrainak eta...

Ez da alferrik eleberria urarekin hasten eta urarekin amaitzen. Horregatik izenburu bi horiek: **Uraren zikloa** hasteko, **ura, jende likidoa**, amaitzeko. Baina hasieran adierazi bezala, deus ez da berdina. Eta horrela gizartearen likidotasuna, eta, narratzaileak pena du, **uraren zikloa** hartan kontaktzen digun bezala, non, ñabardura handiz, haren haurtzaronerabezaroa ezagutaraziz. Etorriko denaren iragarpena dugu ataltxo hau, kontatzaileak behin eta berriro gogora araziko diguna: beti prest izango baita bidaiari inizatikoari ekiteko, etxera itzultzeko bidaiari. Liburua azkentzen duen ipuinean ere urrutimina bezalako sentazioa (nostalgia) dabilkio, orduko eta oraingo gizakiak aurrez aurre jartzean: **lehen** dena zen identifikagarria: “garbi genuen nor zen nor”, “**gaur**, ordea, gurutzatu naizen edozeinen antzekoa naiz” (185). Elitismo kutsua? Iraganaren idealizazioa?

Horra, eleberriaren irakurketa errealista bat. Goazen orain irakurketa zehatzago bat egitera.

Eleberriaz

Bere burua idazletzat daukan pertsona. Bere iritziak, zaletasunak, aldekoak zein kontrakoak, maiz ezkor ematen duen protagonista, bere fetitxeak eta tabuak, han-hemenka erakusten arituko zaigu.

Prosa urduria, aldakorra argudioetan, gezia baino azkarragoa, gaiz eta kokapenez mugitzen arituko da. Egia esatera, sarri pertsonaiak alderrai, arimak balira bezala dabilta, agertu-desagertu. Ez da erraza jarraitzen kontakizunaren hari narratibo maiz hauskorra. Baina ba ote dago hari narratiborik? Edozein modutan, baditu, dena den, oinarrizko tasunak: bere berea duen mundua erakusten digu.

Eta nola irakurri behar da nobela, ipuinak?

Pentsa liteke, nobelaren baitan istorio independenteak daudela. Hasierako narrazioan, adibidez, non protagonistak ez duen bere burua agerian uzten. Bigarrenean, oster, Mai izeneko pertsonaia ageri da, gero beste kontaera batean berragertuko dena. Baina maiz esaten jardungo dugun bezala, osotasun bat badago kontakizunean. Osotasuna estiloan, osotasuna, mundu likidoa islatzean (zeren ez gizartea, berau ez baita ia esistitzen!), osotasuna mundu solidoaren kontrajarpenean (itsas bizitza, iragan zorionsua **hautzaroan**, akatsak akats, gertatu zelako narratzaile edo narratzaileen baitan suspertzaile delako), itxurak egitetik bizi den munduaren bazterketa (paradoxa, huraxe baita mundu likidoa) eta abar. Zalantza jendearen portaeraren baitan: abisal hitzak, adibidez, itsasoan barru-barruan datzana adierazten digu, hemen, berriz, gizakiaren narraskeria: “Behe-jotze **abisala** gizakiarena”(16). Ikus, halaber, 147. orrialdean: “bakardadearen ezagun **abisal** horregatik”.

Literatura likidoan atalean bezala, non fikzioaren barruan errealitate bat den Diane garbitzailea, eskatologikoa zenbaitetan, zikinkerien artean erregina da hura, gero, oster, ordenagailu aurrean jazarri eta, letra etzanetan, fikzioa errealitatearen barruan, narratzaileak Dianeren bizitzako beste fazeta erakutsi nahi digu. Iradokizuna: “idazlea bera dela sentitzen du”.

Eta horrela da, Diane jauzi egin du ordenagailutik (fikziotik) errealitatera (ipuinaren errealitatera, noski), eta, protagonista anonimoari (?) zuzenduz, ezustekoa ematen dio: “zutaz idatzi dudala esan nahi nizun”, esaten dio. (...) “Zuk bezalako neska batek merezi zuen nobela bat”.

Narratzailearen gogoeta. “Desinfektatu beharreko literatura likidoa”.

Beraz, gure ustez, kontakizun horrek zurrumbilo azkarrean, “ekintzaren” sakabanaketa erakusten digu. Video kamera azkar batek ere narratzaileari jarraitu nahi balio ere, seguru aski ezinezko luke guztia antzeman. Irudimenak ziztu bizian darabilkio narratzaileari: egoerek, pentsamenduek inoiz, maiz kontrajarriak dirudite, nekez atxiki dateke egoera, pentsamendu zehatz bat, horixe litzateke nonbait jende likidoaren portaera.

Errealismoa eta fikzioa

Izenburu hori jarri dio egileak azpi-atal honi. Eta, oker ez bagaude, bertan datoz hark egiten dituen fede-aitorpenak. **Gertakaria hor dago: Diane** etxe garbitzailearen harat-honatak deskribatzen ditu gatz eta gordinkeria guztiz haren mugimenduak eta narratzaileak asmatu-rikokoak nahasten direla. Harrigarriri, suposatzen baita narratzailea pertsonaia likidoa dela, hura Dianeren patuaz interesatzen da, beraz, gizabanakoa, *indibidua*, inoren bizitzaz arduratuz, likidotasunaren oinarrietako bat apurtzen duela esan dezakegu. Protagonista ezezagunak garbitzailea berrerosi (*redimitu*) nahi du baina...ahaztu egiten zaio.

Narratzaileak edozein modutan *rara avis* bat dirudi, izan ere, sare sozialetan ari da baina ez oso gustura (12). Zerbait errealista idatzi nahi luke baina errealitateak beti darama fikziora (13). Horregatik zerbait errealista idatzi nahi izan du baina kale egin du. Auto-estimua altxatu nahi du: sinesgarritasuna galtzen dut puntu eta jarrai bakoitzean (14).

Azken finean, fede-aitorpena bat da azpi-atala: “maitasuna likidoa bada, politika, teknologia, nola ez da literatura izango”(14).

Mapa eta lurraldea

Ohiko prozedurari jarraitzen dio egileak. Sarrera batek letra etzanetan **Lurrunketa**, kasu honetan, **Mapa eta lurraldea** deituari ematen dio sarrera.

Lehenengo narrazio laburrean berriro ere itsasoa, guztientzako oparoa, baina halaber, guztientzako arriskutsua. Beroietako bat, itsas munduan baizik erabili ohi den hitz esanguratsu bat dakarkigu narratzaileak: **bruma** (gruma, grumia...). Eta gauzak, siluetak eta abar ezkutatzeko gai den bezala: “denok lurruntzeko behar” bat badago.

Jakina, ez da brumarik behar ihes egiteko. Narratzailearen aitak egin omen zuen bezala, “Haizeak eramandakoa” filmean bezala...

Hurbilago, gurean, Joxean Artzek idatzi eta Mikel Laboak musikaturiko poema ahantzezina: “Maite ditut maite, gure bazterrak **lanbroak** izkututzen dizkitanean”...gogoeta berdintsua egiten du nobelaren egileak; izan ere, brumak,

lanbroak, ikusi ezin duguna, hau da, gure imajinazioa berpizten baitu. Gauza ororen edertasuna.

Mapa eta Lurrealdea: narrazio erogarriak ez du galarazten lerro politak uzten:

“Espaloiak eman gabeko musuz beteta daude” (30). Pintzelkada hauek kontakizun likidoek eragindako suntsipena galgaten dute. Kontakizun honetan bere buruaz mintzo da, azkenik! narratzailea. Eta eskertzen da. Horrenbeste hitz eta esaldi ilaunean artetik badakigu zerbait hartaz: “argaltzeko borondatea eman dit enamoratzek”. Gehiago zehaztu ere bai: (...) “ez naiz errudun sentitzen nire lagun minarekin oheratzean” (30). Fikzioa, aurreko azpi-atalean bezala, piraten munduan geratzen da: Jack Sparrow bezala.

Eta beti ere, liburu guztian barrena bezala, itsas arrastoa lerro politak eskainiz: “emakume arraina andre labaina”, errima bilatuz, edota, “kopulatu” egiten dutela eta, nitasuna agertzen du narratzaileak eta...irakurleak eskertu egiten du: “kresalez bete zait sexua” “

Autoestimua gora egin dio nonbait: “Nik, adibidez, larru jotze soil bat maitasun bihurtzen dut” (33).

Iraganera jotzea, bere itsasoa presente daukala bakarrik onartzen du. Horrelakoetan likidotasanak solidotasunera darama: egiaz, protagonistari geruza bat utzi dion mundura.

Traganarru hitz maiz errepikatua, kontakizunean agertzen da, mehatxatzaile orain.

Eta kostarik kosta, Bizkaitik Gipuzkoara, nabigatzaile (Elkano) zein jostun (Balentziaga) jostalari dabil narratzailearen luma. Eta, berritasuna! Identifikatu egin da! **Mai** deitzen dela esaten digu. Senarra eta umeak ere baditu. Kontzesio “errealista” bakarra?

Maitasun likidoan, protagonistaren omenaldia dator Pepa Flores, Marisol ospetsuari, hots, bigarren etapako Marisoli, egiazkoenari. Gauza da protagonista puta sartzen dela. Polita da bere ibilera marinelaekin alderatzen duenean. Arrantzaleak bezala, putak ere, portu baten bila dabilta. Bapore egokia topatu behar horretarako. Neska honek bidaiak, itsas herri batetik Madrileko oihanera joaz abiarazten du. Marisolen irudi aldaketa beretzat ere nahi zuen nonbait. Narratzaileak emakumeen heziketaz eta ondorengoez gogoeta luzea egiten du. Eta, noski, besteak beste, emakumearen bigarren mailako papera salatzen da. Plazera eta istantea trukutzen zuten lanbide hartan, ez konpromisorik, ezta denborarik ere. Ipuin solidoetako bat da, nahiz eta maitasun likidoa plazaratu. Izan ere, badu halako fede aitoren bat maitasun likidoaz. Arestian adierazi dugun legez: “maitasun likido hark ez zuen eskatzen ez konpromisorik ezta denborarik ere”. Bestalde,

sexu aseptikoa oso ondo definitua dator. Mundu hartan maitasuna ere ez zen gaixotzen, dena zen abantaila!

Kondentsazio ipuin laburrak frogatzen digu egilea ederki molda daitekeela "distantzia" motzetan ere. Maitaleen pasartea grazia handiz idatzia dator.

Gainerako ipuinen izenburuek esaten ari garena berresten dute: handik edo hemendik gizarte likido busti (bego erredundantzia) bat dute abiapuntu eta, maiz, jomuga. Izenburuok irakurtzea baino ez dago:

Izoztea-zilar arraina, Urtzea-elikadura frenesia, Sublimazioa-Koarentenako arrainak, Ilargian ura-txostena, Inatazia-oligoelementuak, Uholdeak-zauria, Itsasoratzea-maitasun amniotikoa, Kostaldeko herri txiki bat-esekitokiak, Ura-jende likidoa, beste ipuin horiek guztiek ere osatzen dute Nerea Arrienen lan interesgarri bezain nahasi hau. Ezin baina bakoitzaren iruzkin sakona egin, lekuz urruti joango bait ginateke, eta ez izan hori **Harixa emon** irakurle tertulia honen jomuga. Uki ditzagun beraien eta orain arte sakonxeago aztertu ditugun kontakizunen arteko loturak edo puntu komunak eta, noski, euren ekarpenik interesgarrienak.

Maiz aipatua izan da, likidotasan literatur korrante bezala, giza-harremanen efimerotasuna; bada, **Sublimazio-koarentenako arrainak**, kontaeran, agian, pertsonaiak, pandemiaren eraginez nonbait, sedentario bihurtu dira. Ana-Jon bikotea dugu alde batetik. Jonek Aquariumean lan egiten du eta, itxuraz, maitasun digitalak ditu; Anak berriz, hondartzan ezagutuko du Mario. Hobeto esateko, haren txakurraren bidez ezagutuko du Mario. Eta hortik sortuko da harreman berezi bat. Horra, pertsonaia "finko" batzuk.

Pandemiari leku dezente eskaintzen zaion narrazio honetan, ekuazio makabroa plazaratzen du kontalariak: "Ikusten ez zen oro garbitzea zen garaiko erronka. Ikusten ez zen zerbaitek hiltzen gintuztelako". konfinamenduaren ondorio txarrak, gehienak, eta, susmagarriak beste horrenbeste, plazaratu izan dira. Hemen ere, kalatxoriak eta txolarreak baino ez dira kalean entzuten. Gizakia falta da. Panorama kezkarri honek Alfred Hitchcock-en "txoriak" filma ekartzen digu gogora, hegaztiak gure kaleak hartu dituztela eta, gu euren etsai jotzen bait gaituzte.

Inatazia-oligoelementoak³

³ **Inatazia** hitzak zer adierazi nahi duen jakiteko ondorengo hitzek emango digute bide: (...) "gogor astindu gintuen" (118). Ukabilaren tamainako jela puskek balkoietako toldoak zulatzean"...(txingorra, kazkabarra).

René Quinton XIX. mendeko frantziar fisiologoaren aurkikuntzak bide ematen dio egileari bere narrazioa abiarazteko. Jakina baita, aipaturiko naturazaleari esker, itsasoko urak eta gizakion odolak daukaten antza. Agian horregatik ur geza eta gazia nahastean edaten zuen tipoaren erabakia, gaztetasun betierekoa aurkitu nahian nonbait. Juliette-ren istorio bitxia, hura ere, itsasoak ematen zion orekagatik itxuraz, gazte mantentzen zena bere 97 urterekin...

Juliette Botox-i baina, hilkutxan arrain fresko usaina zerion, halere, “eder, sentsual, gaztea zelako hil zen”; esaten da, haren maitale negartia ondoan zuela. Katherine Hialuronic⁴, pozoituta hilko dena (haren errautesak noski itsasoak irentsiko ditu), eta, ipuin estranbotiko honi amaiera emateko, pertsonaia nagusiak (?), Aquarium-ean lana aurkituko duena!

Uholdeak kontaera laburrean, lehorrean zein itsasoan izaniko uraren errebeldia aipatzen digu. Hemen ez da ur geza eta ur gaziaren “portaera” bereizten. Biek ala biek ekar ditzakete hondamendia. Adibidez, mende berean Kantauri itsasoko 1912ko galarrena gogorarazten digu narratzaileak zeinetan ehunka arrantzale ito baitziren kostara guztian zehar; mende amaieran, berriz, uholdeek txikitu egin zituzten zenbait herri.

Zauria. Ipuin iradokitzaile honetan **Txenberenaren alabaren** istorioa garatzen da. Pateretako migranteen drama dabil hemen. Gauza da maitasun ukatuak bigarren aukera bat eskaini lezakeela eta hori baliatzen du Nala izeneko haurrak. “Bataiatu” egingo dute itsas herri hartan. Bizitza berri hartan ama berria izango du haurrak: jostun izan nahi du. Lanbide horrek aitzakia ematen dio narratzaileari ia-ia lan etnografikoa burutzeko: arrantzale hizkera, euren lan-motak...

Nikoren amodioa, dena ondo doa: azkenean barkatu egingo dio bere lehenengo amari.

Itsasoratzea-likido amniotikoak-en, bestalde, protagonista bere erditzea bizitzeko eta kontatzeko prest ageri da. Hemen ere, atzera bidea egin nahi du berak, lehenengo eta bere garaiko erditzeak gogoratuz, metafora erakargarri batez (“Oraindik dingilizka daramagu bion arteko sarearen haria”)... amaz gogoratzen delarik protagonista. Ohi bezala unibertso ezin zabalagotan garabiltza narratzaileak (!) Espazioa: Mediterraneo eta etxeko itsasoa, Grezia eta Zumaiako flyscha, doinuak eta irudiak: syrtakia, eta Leonard Cohenen musikaz lagun, *La Dolce Vita*-ko Anita Ekberg bularjoria ahantzi gabe; ez dira falta bertan, jende zapaldua: justiziaren aldeko oihuak, jaio eta hil egiten diren haur itsasoan galduak, berriro ere, pateretako haurrak: “Mediterraneo osoa sabel

⁴ **Botox** eta **hialuronic** izenlagunek adierazten digute ipuinaren ironiazko izaera.

amniotiko bat zela esan zizun”; erdi-urren (*parturienta*) dagoen emakumearen bakardadetik jarraituz, lerro polittik agertzen dira, beti ere guztion ama den **ura** aipatuz: “Bakarrik minetan itotzear nengoen, sabeleko ozeanoan, zeu aurkitu zintudanean” (147). Kontrakzioak kontatuz, jaiotzear dagoen haurrari ere mintzo zaio. Ezin bazter, **jatorrizko histeriko** hitzak **utero**, hots, umetoki hitzaren esanahi berbera duela baliatuz, egileak iruten duen kontakizun erakargarria...

Uholdeak-zauriak (129) deituriko lehenengo kontakizunean, hizkera hiperbolikoa, irudimen izugarria nabari da, ura beti presente duela bere agertze ugaritan: erreka, ibai, itsaso, uholde... Beraien amaiera antologiakoa da: “Ura sartzen hasi zitzaidan, supituki, uholde amniotikoa gailendu zitzaidan sabelean” (130).

Kostaldeko herri txiki bat-Esekitokian, lehenengo kontakizunean haurtzaroko oroitzapen goxoak dakartza egileak. Hark jaioterriari omenaldi bat (beste bat) egiten dio amonaren eta beste hainbat emakumeren soslai adoretsua erakusten digu. Bigarren narrazioan, **esekitokia** ipuin zoragarrian huraxe bihurtzen du egileak hizketagai ugaritsua. Egia esatera, ezin zaio berez leku arrunta dirudien arropa zintzilikatzeko tramankuluari eta haren inguruan gerta litezkeen egoerei zuku gehiago atera!

Liburu guztian zehar agertzen diren erreferentzia asko agertzen zaizkigu, hor dira: Ternua, aitona-amonak, berraitona, balea (haren bizar miraritsuak), eta abar.

Baina bat-batean kontraerak beste bidezidor hartzen du, batez ere, **Ternua IV** azpi-atalean. Fantasiako mundu bat eskaintzen digu narratzaileak, non aitortzen digun errutinazko mundu bat baino nahiago izan duela baleak irenstea”.

Errata eta bestelakoak

Ez dira asko lan honen trinko batean. Hona beroietako batzuk.

Bain baina (59)

Modurrik modurik (118)

Etorri ona **h-** behar luke hasieran (149).

Bestelako akatsak dira, adibidez, poisson (arraina) eta poison (pozoia, edena) ez bereiztea.

Ergatiboa singularra behar luke ondoko esaldiko lehenengo subjektuak: “Azkenean, azalpenek, desleialtasunak berak baino gehiago gaixotzen zaitu” (33). Bestalde, (77) gramatika akatsa da ondoko esaldia: “ez **zitu**en lagunik ikusten”. Partitiboa idatzi du idazleak baina aditza pluralean ezarri.

Ergatiboa falta duela dirudi, 65. orrialdean, Zilar arraina kontaeran, “Enaitzek ez dio erreparatzen espektakulu negargarriari (...) Amak bai, ordea.

Iritzia

Ez da erraza Nerea Arrienen **jende likido** honen laburpena egitea. Haren luma urduriak oinaztarria bezain azkar gai batetik bestera garamatza. Horretarako hizkuntza erreminta ugari darabiltza egileak: metafora, hiperbole, asko eta asko dira horrelakoak, hitz-jokoak, pertsonifikazioak, sinestesiak, sinonimiak, kiasmoak, eta abar. Irudi, egoera eta kokapen, hangoak eta hemengoak, batetik bestera kaos antolatu bat, –horra beste kiasmo bat– nabaritzen dugu kontaeran zehar. Jende likidoak, hara berba tabua, etorkizunerako perspektibarik agertzen ez duen jendea da, inoiz autista kutsuarekin, oraina ere zalantzan ikusten baitute, hori bai, bulka harrigarria duen jendea erakusten du Arrienek bere lanean zehar. Gidoi jakin bati jarraitu izan balio bezala, gehiena da badaezpadakoa: harremanak (ba ote dago ganorazkorik?), begiradak, elkar ikustek.

Dena den, kontakizunak, besterik ezean, hezurdurak finkatuak ditu: iraganak, soil-soilik funtzionatzen du –zuen–. Edo behintzat haren liga (posoa) geratzen da. Edozein modutan, egileak garbi daukan gauzarik bakarrenetakoa bere itsasaldeko jatorria da.

Lea-Artibai ibaiaren babesen sortua, huraxe du egileak oinarritzko erreferentzia, eta, maiz, alderaketa, konparaketa bidea, sarri jotzen du bere haur eta nerabegarora, hain zuzen, osagai “solidoa,” hau ere bakarrenetakoa, bere kontakizunean⁵. Eta, honen guztiaren erdian, protagonista-ardatza, behin baino sarriago esaten ari garen legez, itsasoa dugu: hara hemen umetoki erraldoia. Beraren inguruan bizi diren jendeak solidoak dira, mendez mende itsasoari begira bizi izan dira, eta haren ukitua dute, nahiz eta, pentsa liteke, bertara ere likidotasuna iritsia dela.

Protagonistak liburuari amaiera ematen dion azken ipuinak nostalgia edo herrimina agertzen du, lehengoak eta oraingoak alderatuz: “orduak garbi genuen nor zen nor” iragana (185); noizkoaren alde jartzen den garbi uzten duelarik, izan ere, gaur uniformismoa, indefinizioa, mimesia baita nagusi. Azken finean, liburuko azken esaldian, gure kontalariaren etorkizuneko bidaia oso xumea izango dela, aitortzen da. Irudimenak fikziozko ibilbide nekaezina proposatu dio baina bereak zirkularra du amets: kostaldeko herri batetik abiatu zenak kostaldeko herri txiki batera joko du, aurkitu berri duen mapa lagun.

⁵ Bide inizatikoa ere bada. Kostaldekoa izanik, adibidez, elurra deskubritzen duenean, eta, hura baliatuz, bere hausnarketak egiten dituen bezala. **Izoztea**, 55. orrialdean.

ERANSKINA

El mundo líquido de Bauman

Pontificó contra la superficialidad del momento, tanta información y tan poco tiempo para profundizar, tanto tuit y tan poca base detrás

La muerte de Zygmunt Bauman se ha colado en los telediarios como un paréntesis de filosofía entre tragedias y terrorismo sin darnos cuenta de que la vida del pensador polaco y su obra no fueron precisamente ajenas a esas lacerantes realidades.

Bauman usó la metáfora del jardinero para explicar su visión del mundo moderno, pensaba que **habíamos pasado de ser guardabosques a jardineros**. La tarea principal de un guardabosque es proteger el territorio a su cargo de cualquier interferencia humana, defender y preservar el equilibrio del ecosistema natural. Ese era el mundo premoderno que había dado paso a una modernidad con jardineros. El jardinero da por sentado que no habría orden en su jardín si no fuera por sus cuidados. Diseña en su cabeza las plantas que crecerán y su disposición, y luego lo convierte en realidad arrancando las *malas hierbas*.

Bauman fue siempre una mala hierba: en su Polonia natal, cuando tuvo que huir primero del totalitarismo nazi y luego del estalinismo. Mala hierba también por criticar, siendo **judío**, el sionismo, y mala hierba en los últimos días de su vida desde su cátedra de Leeds viendo muy de cerca el retorno del odio al extranjero con el *brexit*.

En 2014 visitó España y en la Fundación Rafael del Pino siguen tronando sus palabras: “Somos indiferentes a los pobres porque hemos ahogado el impulso natural a ayudar al otro, las normas éticas están en crisis total porque lo que prima ahora es la competencia”. Una “competencia” que Bauman introdujo en su metáfora como los cazadores, aquellos que en el jardín luchan encarnizadamente por obtener presa porque no saben hacer otra cosa. No batallan por sobrevivir, ni siquiera por mantener un orden natural o artificial, sino que cazan, compiten por inercia sin tener en cuenta sus consecuencias. **El mundo posmoderno para nuestro protagonista es mucho peor y se le ha borrado el rostro humano.**

“Dedicó su vida a luchar contra el totalitarismo y sus ideas inspiraron populismos de nuevo cuño”

Poco le hubiera gustado al viejo pensador leer este artículo que analiza su obra sin incluir luces y sombras. De hecho, Bauman pontificó contra la superficialidad del momento, **tanta información y tan poco tiempo para profundizar, tanto tuit y tan**

poca base detrás. Su propio pensamiento sufrió el momento que tanto criticó y su concepto *mundo líquido* se ha convertido en un eslogan que cada uno interpreta a su manera. De ahí la controversia con respecto a su figura, puesto que dedicó toda su vida a luchar contra el totalitarismo pero sus ideas acabaron inspirando populismos de nuevo cuño, o criticó con fuerza al propio capitalismo que con su sistema de libertades permitió que se convirtiese en un icono global. Tampoco fue capaz de superar el diagnóstico del momento actual, magistral por cierto, y llevarlo a soluciones concretas para nuestras sociedades.

Es sabido que el sociólogo acuñó el término de mundo líquido para definir el estado fluido y volátil de la actual sociedad, sin valores demasiado sólidos, en la que la incertidumbre por la vertiginosa rapidez de los cambios ha debilitado los vínculos humanos. Están haciendo agua desde los Estados a las familias, pasando por los partidos políticos, Gobiernos que ya no mandan, los puestos de trabajo que antes nos daban seguridad y que ahora no sabemos si durarán hasta mañana. El mundo está inmerso en lo que se ha venido a llamar la cuarta revolución industrial y en una disrupción tecnológica que junto con indudables avances también está produciendo intensos desafíos de todo tipo: sociales, económicos y, por supuesto, personales. Varios investigadores americanos le han bautizado como un mundo VUCA (del inglés *volatility, uncertainty, complexity, ambiguity*) y no son pocas las organizaciones que han grabado ese acrónimo en lo más vistoso de sus planes estratégicos.

Alguien puede pensar que el diagnóstico de Bauman no es nuevo, pero nadie duda hoy de su clarividencia, y desde que en el año 2000 formuló su teoría en su libro *Liquid Modernity* hasta hoy en día, esa liquidez lo ha impregnado todo. Para Bauman la peor consecuencia de todo ello es el individualismo reinante y la renuncia a un humanismo que cada día se hace más necesario volver a abrazar. Basta estar solo unos minutos delante del mismo televisor que nos anunció su muerte esta semana para constatarlo.

Iñaki Ortega es doctor en economía.

IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/eibar>



@EibarLiburutegi



@EibarkoLiburutegia



@eibarkoliburutegia



@eibarkoliburutegia



Juan San Martin Liburutegia

Bista Eder, 10 (Eibar)

Tel. 943 70 84 37

liburutegia@eibar.eus

